




ORTZAIZE

Haltzamendi

Distantzia 12,5 km	Desnibela 720 m	Iraupena 4h00	Tipologia Joan-etorria	Zedarriak Osoki PR
------------------------------	---------------------------	-------------------------	----------------------------------	------------------------------

Ibilaldia Ortzazeko pilota plazatik abiatzen da.

GPS datuak: **UTM : 639313 - 4789097 Lat/Long : 43.241778/-1.284045**

Ibilbide honetan ibiltariak Baigurako hego isurkia ezagutuko dute. Joan-etorri honek paisaia eder-ederrak eskainiko dizkizu: Aldudeko baleatik Lakako baleara, Larrunetik Bearnoko lehen tontor goretara, besteak beste Añamendira. Igoaldian, elar alorrek, pentzeak, oihanak zeharkatuko dituzu, eta beharbada hango fauna basa, aberatsa eta anitz motatakoa ikusten ahalko duzu. Burua altxatzean, sai arreak ikus daitezke baita ere beste harrapari franko, ornitologia zaleen zorionerako. Azkenik, Haltzamendi kaskoan, ibiltarien nekeak sarizatuak izanen dira ingurumen oso lasaia kausituko baitu, eta ikuspegi zoragarria.

**1. ZATIA > Ortzazeko herri barnean**

UTM : 639313 - 4789097

Pilota plazatik, joan D8 errepidetik, eliza giblean utzirik. 100 m iragan ondoan, har lehenbiziko errepidea eskuin eskolara buruz. Futbol zelaia iragan ezkerrean, latsagia eskuinean, eta bidegurutzetan, joan ezkerrean. Zenbait etxe pasatu ondoan, bihurtune batera helduko zara eta errepidea bitan zatituko da. Joan eskuin, eta segi puntaraino.

2. ZATIA > Oihanaren zeharkatzea


UTM : 638483 - 4789659

Segi bidean barna, ibil pentzearen bazterretik eskuin, eta xeila iragan erreka bazterrean. Joan erreken bazterretik oihanpeko igoerara heldu arte. Bihurgune zenbaiten ondotik xendra mendi mazelan gaindi doa, elar eta ote alor baten erdian. Iragan artekatik eta segi igoera xendra horretatik. Ibarxka zolan bidea oihan batetik iragaten da kasko bateraino, non arditegi bat baita.

3. ZATIA > Mendi mazelan

UTM : 638100 - 4790756

Segi ibilbidea harri idorrezko pareta apal bat segituz, eta segi igoera kasko luze horretan, larre baten erdian. Patarra eztatzen da eta bidea bihurtune luze bilakatzen ezkerrean, zirku zabal batean. Beste kasko batera helduko zara, joan beste aldera eta ezkerrean segi mendi mazelan ezkiki igaten den xendratik. Harri mokor gune batera helduko



zara, eta han xendra zatitzen da. Joan eskuinera, bidea doi bat igaten da eta lepura heltzen.

4. ZATIA > Azken igoera

UTM : 637661 - 4791853

Egon ezkerreko mazelan eta segi ondoko bide adarkatzeraino. Utz ezkerreko bidexka, eta jauts Bidarraira buruz, eta segi igaten. Beste kasko batera helduko zara, har eskuin patarrean, ote eta elar mulkoen erdian. Kasu, azken igoera horretako ibilbidea segitzeko aski zaila da. Haltzamendi kaskora heldu eta goza ezazu bistaz, eta gibelera itzul zaitez. Ibilbide beretik itzuliko zara.

**INTERESGUNEAK****❖ Larreak**

Ote eta elar larreak bilaera naturaleko guneak dira oihan ingurumenaren buruz. Euskal Herrian sei elar espezie atzematen dira, horien artean Daboecia cantabrica, bakarrik Frantziako hego-mendebaldean atzematen dena. Fauna tipikoa ere bizi da bertan.

UTM : 638482 - 4790079

❖ Etxola

Etxola harriz egin mendiko arditegia da, udaldian artzaina eta haren ardi tropa aterpetzen dituen. Eraikina gune lauan kokatua da eta pentze baten ondo-ondoan. Ibilbidean zehar bidea batzuk ageri dira eroriak, izan ere, laborantza eta artzaintza aldatzen ari dira eta leku horiek baztertera uzteko joera dute.

UTM : 638121 - 4790758

❖ Paisaia

Haltzamendi lur-muinotik ikuspegi zabala bada. Gainera ikuspegiak ibiltari mendi tontorrek eskaintzen dizkie: Landetako hondartzetatik Hendaia mendebaldean, eta Pic du Midi de Bigorerraino zerua argi delarik.

UTM : 637713 - 4792562

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Itzal gutiko ibilbidea oihanetik atera ondoan
- Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Komuna publikoak Ortzazeko herrian
UTM : 639313 - 4789097

4. ZATIA



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoa. Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilitzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Lokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiotzu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informatu zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota ondorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren gunetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 -
SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKEL BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeo aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu ematen arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak

- BAIGORRI

Herriko Etxeko plaza

+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 37 03 57

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorrie jarraitu beharko zaizkie. ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEKKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↶	↶	↶	◀
Itzul eskuin	↷	↷	↷	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗